

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

881

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, zeinaren bidez hiru bekatarako oinarriak arautu eta deialdia onartzen baita, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko 2025ean.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen eremu guztietan. Ildo horretan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ardura da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, planifikatu eta ebaluatzea, eta aholku ematea politika horiei buruz; bat etorri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak ezarritakoarekin, zeina martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren bidez onartu baitzen. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3.i) artikuluan, erakunde horri izendatzen zaio jarduera-eremu guztietan egin beharreko politika taxutzeko azterlanak egin daitezen bereziki sustatzea.

Beka-modalitatearen bidez, deialdi honen bidez bi alderdi batu nahi dira: batetik, azterlanak egin daitezen sustatzeko eta horien gainean herritarrak sentsibilizatzeko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dituen egitekoak, eta bestetik, ikerlanak egin behar dituzten pertsonen trebakuntza. Izan ere, gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna lortuko badugu, aztertu egin behar dugu zer genero-harreman eta -rol dauden gaur egun emakumeen eta gizonen artean arlo guztietan ageri diren ezberdintasunen oinarrian, eta abian jarri diren edo jarriko diren ekimenek emakumeengan eta gizonengan nola eragiten duten edo nola eragin dezaketen. Azterlan horiek garatu eta zabaltzea funtsezkoa da eztabaida publikorako eta erabaki politikoak hartzeko, are gehiago genero-ikuspegia politika guztietan txertatu nahi badugu. Ezin uka daiteke oso baliagarria dela lan horien berri ematea politikak planifikatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko erantzukizun politikoa eta teknikoa dutenei; izan ere, lan hori egiteko, eskura eduki behar dituzte beharrezkoak diren tresnak, generoari buruzko alderdiei ekite aldera, alderdi horiek aztertze aldera eta berdintasunerantz aurrerapausoak emateko neurriak proposatze aldera beharrezkoak diren tresnak, alegia. Betiere, Europako Kontseiluan sortutako «mainstreaming»eko aditu-taldearen iritziz. Aldi berean, beka-deialdiak aukera ematen du arloan gehiago prestatzeko eta ikertzeko; era berean, onuradunen ibilbide profesionala sustatzen du.

Horregatik guztiatik, deialdi honetarako, erakunde honen iritziz, egoki da aurreko ekitaldietan hasitako ildoarekin jarraitzea. Haietan, beken bitartez ikerlan batzuk egitea arautu zen, orain arte behar bezala ekin gabeko eremuetan ikertzea batez ere. Bekak beste laguntza mota bat bezala taxutu dira; ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen eremuetan, deialdi mota horiei dagozkien araudia eta ezaugarriak aplikatuko zaizkie, oro har. Bekak norgehiagoka prozeduraz esleituko dira, behar bezala barematutako esleipen-irizpideei jarraituz. Azkenik, beka emateak inoiz ez du kontratu, lan edo estatutu bidezko loturarik ezarriko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

Ekitaldi honetan ere hiru beka mota daude, mota bakoitzari ikerlan desberdin bat dagokiola. 1. eta 3. beken helburua da bekadun izango direnak genero-harremanen testuinguruan agertzen ari diren ikerketa-gai eta -eremuetara bideratzea eta eremu horietan trebatzea sustatzea, eta gure gizartean balio-aldaketa bat gerta dadin laguntzea. Bestalde, 2. bekaren bidez, oso aitortua den premia bati erantzungo zaio, hots, askotariko bereizkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen premiak aztertzen eta premia horiei erantzuten aurrera egiteko beharri.

Bestalde, hautagaiak hautatzeko prozedurari eusten zaio, alegia: lehendabiziko hautaketa egiten da, eta ondoren elkarrizketa bat, hautaketa-prozedura egoki kudeatzeko egokitzat jotzen den hautagai-kopuru jakin batekin; balorazio-irizpide objektibo eta tasatu berberak erabiltzen dira.

Inguruabar horiek kontuan izanik, deialdi honen bidez dinamizatu nahi dira beka bakoitzean definitutako azterketa-eremuak, eta bermatu nahi da kalitatezko ikerlanak egingo direla. Hori dena, berdintasun eraginkorra lortzeko emakume eta gizonen artean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Dirulaguntzen 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoan aurreikusten den bezala, zeina Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak onartu baitzuen 2024ko urriaren 21ean eman zuen ebazpen baten bidez.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Kontuan izanik zer helburu deskribatu diren, hiru bekatarako oinarriak arautu eta deialdia egiten da 2025erako, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko. Deialdietan, publizitate-, konkurrentzia- eta objektibotasun-irizpideak aplikatuko dira, bat etorri Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak 2024ko urriaren 21ean emandako Ebazpenarekin, zeinaren bidez onartzen baita Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoa, ebazpen honen eranskin modura azaltzen dena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan aipatutako dirulaguntzak emateko, honako arau hauetan xedatutakoa hartu da aintzakotzat: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beronen aurka egiteko, pertsona edo entitate interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hilabete biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 18a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.

ERANSKINA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALORREKO HIRU IKERLANETARAKO BEKEN 2025 URTERAKO DEIALDIAREN OINARRIAK.

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da hiru beka emateko deialdiaren oinarriak eta deialdia onartzea, 2025. urtean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egiteko.

2. artikulua.– Beka bakoitzaren edukia eta ezaugarriak.

1.– Beka mota bakoitzaren edukia ikerketa-gai hauei buruzkoa izango da:

a) 1. motako beka: gizartean dauden eremuetan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea;

b) 2. motako beka: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan; bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzean eta segurtasunean.

c) 3. motako beka: erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen ahalduzko politikoa, ekonomikoa eta soziala eta lidergoa mesedetzeko eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen laguntzeko.

2.– Beka eskatzen duten pertsonak edo taldeek beka mota baterako baino gehiagorako proiektuak aurkez ditzakete.

3.– Bekak emateak ez du esan nahi Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin kontratu-, lan- edo estatutu-harremanik ezarriko denik, eta ez da lanik egingo EAEko Administrazio Orokorreko edo haren organismo autonomoetako bulegoetan.

3. artikulua.– Hautapena eta zuzkidura ekonomikoa.

1.– Deialdi honetako beka mota guztiak (3) lehiaketa-prozeduraz ebatziko dira. Ondorio horietarako, lehiaketatzat hartuko da laguntzak edo dirulaguntzak emateko prozedura, aurkeztutako eskabideak erkatu eta horien arteko hurrenkera ezartzeko. Oinarri erregulatzaileretan aurretik ezartzen diren balioespen-irizpideak erabiltzen dira horretarako, eta irizpide horiek aplikatuz balioespenik altuena lortzen duten eskaerei bakarrik ematen zaie dirulaguntza edo laguntza.

2.– Erakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako da aurreko artikuluan adierazitako helburuak lortzen laguntzeko diru-zuzkidura, eta hirurogeita bederatzita mila bederatziehun eta lauogeita hemeretzi (69.999,00) eurokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean jasotzen den bezala.

Kopuru horretatik, 23.333 euro 2025eko ordainketa-kredituei dagozkie, eta gainerakoa –hau da, 46.666 euro–, 2026ko konpromiso-kredituei.

4. artikulua.– Eskatzaileak.

1.– Pertsona fisikoek edo pertsona fisikoen taldeek lortu ahal izango dituzte beka hauek, baldin eta aurretik ez badute lortu beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako izaera bereko bekarik,

eta betetzen badituzte Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan finkatutako betekizunak; horrez gain, bekak eskuratzeko, pertsona horien ikerlanek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Argitaratu beharreko ikerlanaren azterketa-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar du, eta bertan garatu behar da.

b) Ikerlanak genero-ikuspegia jaso behar du bere helburuetan eta metodologian.

2.– Baldin eta hainbat eskatzailek ikerlan bakarra aurkezten badute, ikerlanaren titular-kide direnek euren arteko bat izendatu beharko dute koordinatzaile eta ordezkari izan dadin Administrazioaren aurrean, bat etorri Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluko betebeharrekin.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea, elektronikoki izapidetzea.

1.– Eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari helaraziko zaizkio, eta aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Erregistro Orokorrean (Manuel Iradier kalea 36, Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein bulegotan.

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak gutun-azal irekian jarri behar dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, eskabidea dagokion bulego publikoan noiz sartzen den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

2.– Halaber, interesdunek bide elektronikoak erabil ditzakete prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko. Bitarteko elektronikoak erabilia aurkeztu ahal dira eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0037811>

Prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikoak erabiliz egin ahal izateko, interesdunek egiaztagiri elektroniko onartu bat izan behar dute: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Eskabideak elektronikoki ere aurkeztu ahal dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoan egiteko, helbide honetara jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta>

3.– Egin beharreko izapideei buruzko zehaztapenak, ebazpen honetan ezarritakoak, hala aurrez aurreko izapideenak nola izapide elektronikoan, eskuragarri egongo dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen web-orrian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0037811>

4.– Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bideak –aurrez aurrekoa edo elektronikoa– ez dakar prozeduraren hurrengo izapideetan bide hori erabili beharra.

5.– Eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta dokumentazioa, nahi duten eran. Interesdunek hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko apirilaren 1ean amaituko da, egun hori barne.

6. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta dokumentazioa.

1.– Pertsonak edo pertsona-taldeek eskabide bat aurkeztu beharko dute beka motako. Eskabidean, berriz, erantzukizunpeko adierazpen hauek jaso beharko dituzte:

a) Ez daudela kondenatuta laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Ez dutela jaso dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapenik ebazpen irmo baten bidez, hala ezartzen duen edozein legeren arabera. Zehazki, sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso izana, dagokion zehapenean ezarritako aldia gainditu gabe.

c) Ez dutela administrazio publiko edo pribatuetatik xede eta helburu bererako laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso edo eskatu, ezta lehenago jaso ere.

d) Egunean dituztela dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan zehaztutako moduan (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

e) Betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, legez ezarritako moduan. (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari eta dirulaguntzak itzultzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluetako kasuetan).

f) Betetzen dituztela indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

g) Egiazkoak eta osoak direla eskabideko datu guztiak, baita aurkezten duten dokumentazio guztia ere, eta dagokien erantzukizuna bere gain hartzen dutela (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

2.– Laguntza-eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Zein beka motatara aurkezten diren, I. eranskinaren arabera, zeina behar bezala sinatu beharko baita. Ikerketa zenbait lagunen artean egitekoa bada, argiro zehaztu beharko da bakoitzak zein eginkizun eta zeregin izango dituen prozesuan eta nork bereganatzen dituen ikerketa-taldearen koordinazio- eta ordezkaritza-lanak.

b) Taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpenak eta adostasunak, II. eranskinaren arabera eta behar bezala sinatuak, sinatzaileari buruz aurretiaz adierazitako modu berean.

c) Ikerlanaren azalpen-memoria, behar bezala sinatua, III. eranskinaren arabera.

d) Pertsona bakoitzeko, curriculum-eredua, behar bezala sinatua, IV. eranskinaren arabera.

e) Bidalitako dokumentuen zerrenda, V. eranskinaren arabera.

Eskabidea eta III. eranskina, batetik, pertsonak edo koordinatzaile ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko dira; eta II. eta IV. eranskinak, bestalde, banan-banan sinatu beharko dituzte pertsona guztiek edo taldea osatzen duten guztiek.

3.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edozein unetan eskatu ahal izango du jatorrizko dokumentazioa entregatzeko, autentikotasuna egiaztatzeko.

4.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak ordeztu egingo ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, bat etorritik Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari eta dirulaguntzak itzultzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 8.1.g) artikuluekin.

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsen zuzenketa.

Beka-eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 6. artikuluan eskatutako dokumenturen bat falta bada, Emakunde interesdunari eskatuko dio aurkezteko falta den dokumentua edo zuzentzeko atzemandako hutsa. Horretarako, hamar eguneko epea emango dio, hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dena. Horrez gain, ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, ulertuko dela atzera egin duela eskabidean, eta, kasu horretan, ebazpena emango dela, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan ezarritakoarekin.

Akatsak zuzentzeko, «Nire karpeta» atalera jo ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

8. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

1.– Hautaketa-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko kide hauek osatuko dute batzorde hori:

Batzordeburua: Izaskun Garaigordobil Garmendia andrea, Administrazio Arloko arduraduna.

Ordezkoa: Andrea Nuñez Fernández andrea, Berdintasun Eskubideen Defentsarako Arloko arduraduna.

Batzordekideak:

– Noemí Alangua Elvira andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Ikerketa, Dokumentazio eta Plangintza Arloko arduraduna.

Ordezkoa: Ander Bergara Sautua andrea, Lankidetzaren Institutuzionalaren Arloko arduraduna.

– Julene Gatzagaetxebarria Ameyugo andrea, Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.

Ordezkoa: Unay Casado Lataburu jauna, Aholkularitza Juridikoaren Arloko teknikaria.

– M.^a de los Llanos Olivas Lagunilla andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Ikerketa, Dokumentazio eta Plangintza arloko teknikaria.

Ordezkoa: Iñaki Imaz Mujika jauna, Ikerketa, Dokumentazio eta Plangintza Arloko teknikaria.

Idazkari-lanetan, Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduradunak jardungo du, edo, hala badagokio, haren ordezkaria.

2.– Hautaketa-batzordeak gaien adituak diren pertsonen laguntza eta aholkularitza izan dezake.

9. artikulua.– Hautagaitzak hautatzea eta balorazio-irizpideak.

1.– Hautaketa-batzordeak baloratuko du zer ezagutza duten eskatzaileak edo taldeko kideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko bekaren gaiaren inguruko ikerlanak egiteko, zer prestakuntza eta esperientzia duten, zer gaitasun duten kontzeptuak zehatz-mehatz eta egokiro adierazteko, zer aukera duten bekaren langaian jarduteko, eta zer interes eragiten duen ikerlan- proposamenak eta zein den proposamen horren ikuspegia. Horretarako, beka mota bakoitza emateko, hautaketa-batzordeak balorazio-irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuei kasu eginda:

A) Ikerlanaren kalitatea, oro har (70 puntu, gehienez).

a) Ikerlanaren esparru teorikoaren planteamendua (20 puntu, gehienez).

b) Ikerlana argia eta bideragarria izatea, egutegia eta metodologia barne (20 puntu, gehienez).

c) Ikerlanerako dedikazioa (20 puntu, gehienez)

d) Berrikuntzak (10 puntu, gehienez).

B) Pertsonaren edo taldearen ibilbidea profesionala (20 puntu, gehienez).

Lana egiten duten banakoek edo taldeetako kideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza; bereziki, eskatutako bekaren ikerketa gaiari buruz dutena.

C) Ikerlanak euskaraz egitea (10 puntu, gehienez).

2.– Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak atzera botako dira.

3.– Lehen aukeraketan hartutako hautagaiei deia egingo zaie elkarrizketa bat egiteko, beren proposamena azaldu eta defendatu ahal izan dezaten. Hautaketa-batzordeak, gehienez ere, hiru hautagai elkarrizketatuko ditu bekako, puntuazio-ordenaren arabera.

4.– Hautaketa-batzordeak egiten duen elkarrizketan, eskatzaileak edo talde-koordinazioa bereganatzen duenak azaldu beharko du zein diren aurkeztu duen memoriaren edo proposamenaren nondik norakoak. Batzordeak galderak egin ahal izango ditu azaldutakoari buruz eta bekaren xedeari buruz.

5.– Hautaketa-batzordeak, egindako balorazioaren arabera, esleipen-proposamen bat egingo du. Proposamenean, zehaztuko da zer pertsona edo talde hautatu diren beka mota bakoitzerako, zein den ordezkoko eskabideen zerrenda –pertsona edo talde onuradun batek uko egiten duenerako–, eta zein den kanpoan utzitako eskabideen zerrenda, zehaztuta zein den kanpoan uzteko arrazoia. Beka mota baterako edo guztietarako, deialdia bete gabe uztea ere proposa dezake, baldin eta banako edo talde hautagairik ez baldin badago edo proposamena azaldu eta defendatzerakoan behar bezainbateko kalitatezko ikerlanik ez badago.

6.– Deialdi honetako hiru beketakoren bat eman gabe utziz gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bekaren diru-zenbatekoaz baliatzea erabaki dezake, eta diru-zenbateko hori beste beka baterako ematea, hain zuzen ere, beste mota bien artean puntu gehien eskuratu duenarentzat.

10. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasunak.

Deialdi honetan aurreikusitako bekak bateraezinak dira beste erakunde publiko edo pribatu batek helburu bererako eman dituen edo eman ditzakeen beste beka, dirulaguntza edo laguntza batzuekin.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hautaketa-batzordearen esleipen-proposamena organo kudeatzaileari helaraziko zaio, hau da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Idazkaritza Nagusiari.

Organo kudeatzaileak, espedientea eta hautaketa-batzordearen txostena ikusi ondoren, ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta.

Erakundearen zuzendariak behin betiko ebazpen espresua emango du, eta aditzera emango du zer beka eman edo ukatzen diren, eta, hala behar denean, adieraziko du deialdia bete gabe utzi dela. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie banakoei zein talde onuradunei, bide elektronikoz edo postaz. Emandako beken zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Eskabidearen osteko izapideak, jakinarazpenak barne, bide elektronikoz egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro, eta pertsonari edo pertsona-taldeari ez bazaio jakinarazten ebazpenik, ulertu ahal izango da beka-eskabidea ezetsi dela, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan.

12. artikulua.– Jabetza intelektualaren eskubideak.

1.– Jabetza intelektualaren eskubideari buruzko arauen esparruan eta indarreko legedian jasotakoaren arabera erabiliko dira egindako lanak.

2.– Nahi izanez gero, Emakunderi laga ahal izango zaizkio ustiapen-eskubideak. Erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko ustiapen-eskubideak (erakunde honi lagatakoak), eta, orobat, ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak, hain justu ere, mugarik gabe eta egungo hizkuntza eta prozedura ororen bitartez erabil daitezkeenak, egokitu beharko dira deialdi honetan jabetza intelektualari buruz aplikatu daitezkeen araudiaren arabera xedaezinak diren baldintzetara eta mugetara.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan araututako beken onuradun diren norbanakoek edo taldeek bete beharko dituzte Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan xedatutako betebeharrak. Zehazki, betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Onartzea ematen zaien beka. Ildo horretatik, ulertuko da beka onartzen dutela baldin eta, beka eman zaiela jakinarazteko idazkia jasota, hamabost eguneko epean ez badiote espresuki eta idatziz uko egiten.

b) Beka zertarako ematen den, horretarako erabiltzea, eta, gutxienez, hiru hilean behin Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunderi jakinaraztea zer lan egin den eta zer emaitza lortu den. Horretarako, egutegi bat ezarriko da, eta lanek Emakunderen adostasuna edo oniritzia jaso beharko dute.

c) Emandako beka motarekin bat datorren ikerlana egitea, euskaraz eta/edo gaztelaniaz. Era berean, testua idaztean, ez da egingo hizkuntzaren erabilera sexistarik.

d) Egindako lanen argitalpen eta publizitate orotan, azaltzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza jaso dutela. Horretarako, erakundearen marka erreproduzitu beharko da publizitate-euskarrian, parte-hartze mailaren arabera dagokion tamainan, kokalekuan eta ikuskeran, bat etorritik Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuarekin. Marka hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunderi eskatu ahal izango zaio, eta bekadun lanean azalduko da, bat etorritik Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluekin. Markari buruzko dokumentazioa esteka honetatik ere eskuratu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/>

e) Diruz lagundutako ikerlanen bina kopia Erakundeari eman beharko zaio paperean, ondo koadernatuta. Beste kopia bana, berriz, euskarri informatikoan aurkeztu beharko da dokumentazio-zentroan. Erakundeak euskarri informatikoko kopia hori hedatuko du, egokitzat jotzen dituen bide eta euskarrietan, herritarrek sentsibilizatzen laguntzeko eta bekadunen etorkizuneko garapen profesionala sustatzeko eta laguntzeko. Beti aipatu behar da nor diren lanaren egileak, eta erabat bete beharko da jabetza intelektualerako eskubideari buruzko araudia.

f) Alta emanda egotea Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroan. Nahitaezkoa da betekizun betetzea, deialdia ebazteko eta ordainketak egin ahal izateko, ebazpena laguntza ematekoa bada. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu ahal izango da. Horretarako, zerbitzu bat dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

14. artikulua.– Bekaren iraupena eta ordainketa.

1.– Bekak hamar hilabete iraungo du, deialdiaren ebazpena jakinarazten den unetik aurrera, eta epe hori ezingo da luzatu.

2.– Beka bakoitza 23.333 eurokoa izango da, eta hiru zatitan ordainduko da: lehenengoa, ebatzi bezain laster; bigarrena, 2026ko ekitaldian, une horretara arte egindako ikerlana ontzat eman eta gero; eta hirugarrena, ekitaldi horretan, bekaren helburu den azterlana jaso eta baloratutakoan.

3.– Baldin eta emandako beka ez bada onartzen 15 eguneko epearen barruan, beka hori hurrengo eskatzaileari esleituko zaio, puntuazio-ordenaren arabera. Epe hori amaitu eta gero, ezingo da jo ordezkoen zerrendara.

4.– Beka jaso duten pertsonak edo pertsona-taldeak bekari uko egiteak esan nahi du ez direla betetzen bekaren betebeharrak; ondorioz, galdu egingo dira ebazpen honetan aurreikusten diren eskubide guztiak, eta prozedura bat hasiko da jasotako diru-kopuru guztiak gehi berandutze-interesak itzultzeko. Behin bekak hasita, inork bekari uko eginez gero, ez da esleipen berririk egingo.

5.– Bekaren zenbatekoa zifra gordina da; hori dela eta, beka-onuradunen kontura egingo dira tributu-atxikipenak.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

Antzemanek gero ez direla betetzen beka emateko orduan kontuan hartutako baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako diru guztia eta berandutze-interesak, hargatik eragotzi gabe bidezko diren gainerako ekintza guztiak. Hori guztia, bat etorritik Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluekin eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin.

16. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez direnean, beka itzultzeko prozedurarako, aintzat hartuko da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa, honako hau baitio:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio pertsona edo talde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio, egokitzen jotako alegazioak egiteko.

b) Alegazioak jaso ondoren, edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean ulertzen bada ez direla bete baldintzak, deklaratu da galdu egin dela beka jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, aginduko da Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak. Dirua, gehienez ere, bi hilabeteko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Dirua borondatez ordaintzeko epean itzuli ezean, horren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunari, hark premiamendu-bideari ekin diezaion, bat etorritik aplikatzeko den legezko araudian xedatutakoarekin.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik beka itzultzeari buruz artikulua honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, hamabi hilabetekoa izango da.

17. artikulua.– Datu pertsonalak babestearen arloko informazio-klausula.

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: laguntzak, dirulaguntzak, sariak eta beka.

Arduraduna: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.

Helburua: beka, sariak, laguntzak eta dirulaguntzak ematea haiek eskatzen dituzten pertsonen edo entitateen.

Legitimazioa: beharrezko tratamendua, interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko, edo interesdunak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea).

Hartzaileak:

- Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
- Interesdun legitimatuenak.
- Organo judizialak.
- Kontu-auzitegia edo erkidegoko baliokidea.
- Pertsona fisiko onuradunen datuak EHAA-n argitaratzearen ondoriozkoak, kasua bada.

Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Datuak babesteari buruzko informazioa: <https://www.euskadi.eus/datu-babesa/>

Informazio gehigarria: gure web-orrian duzu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/062200-capa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).